



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA 2004ko azaroaren 18ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK: ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYA jn.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARAGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta lauro azaroaren hamazortziko iluntzeko zortziak eta hogeirela, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2004KO URRIAREN 28KO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA: Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe zegoela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, 2004ko urriaren 28ko bilerako akta onetsi du.

2.- TXORIERRI AUZOAN ESPALOIA, GALTZADA ETA PASEALEKUA HOBETU ETA ATONTZEKO PROIEKTUA ONESTEA. Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2004ko azaroaren 17an egindako bileran onetsitako Alkatetza-Udalburutzaren 185/2004 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Batzordeburuak jakinarazi du PROGEN enpresak burutu beharko dituen 76 BOEko sustapenaren eraikuntza-lanez gain, urbanizazio-lan osagarriak egin beharko direla.

Zehazki, lanak Txorierri auzoko zenbaki bakoitietako irteeretako galtzadan egin behar dira; halaber, 33, 35, 37 eta 39 zenbakietako blokeetako hirigintza trabak bateratu eta kendu egin behar dira, aipaturiko etxebizitzetatik ibilgailuak errazago irteteko eta oinezkoak sartzea hobetzeko. Orain baldintza txarretan dagoen pasealekua ere berritu egin behar da.

Ondorio horietarako, Udaleko Bulego Teknikoak 169.196,64 euroko (BEZ barne) kontrataren aurrekontua duen lanen proiektu teknikoa egin du.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduera hauek egitea komeni dela adierazi du:

- Osoko bilkuraren erabakiaren bidez, lanen proiektua onestea, 169.196,64 euroko esleipena izango duena.
- Alkatetza-Udalburutzak lanak lehiaketa ireki bidez adjudikatzeko beharrezkoak diren administrazio-tramiteak egitea (baldintza-agiria onartzea, iragarkiak argitaratzea eta abar).

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Txorierri auzoan espaloia, galtzada eta pasealekua hobetu eta atontzeko proiektua eta lanen 169.196,64 euroko esleipena **onestea erabaki du**, Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoaren arabera.

3.- ERANDIOKO UDALAK LEIOAKO UDALARI EMANDAKO KUDEAKETA ENKARGUA LUZATZEA, SALTUENA ARLOKO KUDEAKETA TRAMITEAK SUSTATZEKO. Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2004ko azaroaren 17an egindako bileran onetsitako Alkatetza-Udalburutzaren 182/2004 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek Antón Perez-Sasia Basterra jaunak 2004ko azaroaren 9an aurkeztutako idazkia (sarrera-erregistroko zenbakia: 6.258) irakurri dute. Horrek INMUEBLES MADARIAGA PROMOCIONES S.L. merkataritza-enpresaren izenean jarduten duela adierazi du, eta honakoa azaldu du:

“Agertutako alderdiak ordezkutzen duen merkataritza-enpresak Leioako Ospitaleak hartzen dituen lurren hirigintzako garapenari buruzko hitzarmen bat sinatu zuen 2000ko azaroaren 15ean, Leioa eta Erandioko Udalekin.

Udalen betebeharren (hirugarren ituna, bigarren epigrafe) artean, hitzarmen horrek kudeaketa enkargua erabiltzea aurreikusten zuen, plangintza orokorreko hirigintza tresnak garatzeko bideak onesteko, enkargua hartzen zuen erakundea Leioako Udala zela.

Kudeaketa enkargu horri lotuta, aipatutako itunaren azkenaurreko paragrafoak hurrengo ezartzen du:

“Kudeaketa enkargu gomendio hori burutzeko epea bi (2) urtekoa izango da, hitzarmen hau sinatzen denetik zenbatzen hasita, eta epe horren barruan indarrean egongo da erabat. Enkargua hartu duen erakundeak eskaera



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

eginez gero, epe hori iraupen bereko epeez luzatuko da automatikoki, eta horretarako nahikoa izango da enkargua egin duen erakundeari jakinaraztea.”

Gaurko egunean, Udalekin sinatutako hitzarmen horren bi urteko lehenengo luzapena bukatzeaz dago, aurreikuspenak amaitu ez direla. Horregatik, idatzitako baldintzan agertutako aurreikuspenak aplikatuz, bidezkoa da Leioako Udalak, enkargua hartu duen erakundea den aldetik, beste bi urteko luzapena jakinaraztea Erandioko Udalari, enkargua egin duen erakundeari, hain zuzen ere, hitzarmeneko aurreikuspenen behar bezalako indarraldiari dagokionez.”

Horri dagokionez, Udaleko Bulego Teknikoak jakinarazi du azaroaren 12ko 1001/02-BT zenbakidun dekretuaren bidez kudeaketa enkargu horren lehenengo luzapena onetsi zela. Dekretua presazko arrazoiei jarraiki eman zen, eta gero Udalaren osoko bilkurak 2003-1-30ean hartutako 7 zenbakidun erabakiaren bidez berretsi zen. Halaber, bigarren luzapena onetsi beharko da.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak adierazi du bidezkoa dela osoko bilkuraren bidezko erabakiaren bidez, Leioako Udalak Kudeaketa enkargua beste bi urtez luzatu nahi duela jakinaraztea Erandioko Udalari. Enkargu hau Inmuebles Madariaga Promociones S.L. merkataritza-enpresak eta bi udalek 2000ko azaroaren 15an sinaturiko hitzarmenaren hirugarren ituneko bigarren epigrafean arautzen da. Halaber, enkargua azaroaren 12ko 1.001/02-BT zenbakidun dekretuaren bidez berretsi zen, dekretu hori presazko arrazoiei jarraiki eman zela eta geroago osoko bilkurak 2003-1-30ean egindako bileran hartutako 7 zenbakiko erabakiaren bidez berretsi zela.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpena berretsita, **Udalaren osoko bilkurak, aho batez**, Saltuena arloko hirigintzako kudeaketa tramiteak sustatzeko emandako enkargua beste bi urtez luzatzea, eta enkargua eman duen erakundeari, hau da, Erandioko Udalari, horren guztiaren berri ematea **erabaki du**, 2000-11-15ean sinatutako hitzarmenaren hirugarren itunean ezarritako ondorioetarako.

4.- EUDEL ETA IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA, S.A.U.REN ARTEKO HITZARMENA, TOKIKO HERRI JABARIAREN APROBETXAMENDU BEREZIA EDO BAKARREKO ERABILERA EGITEAGATIKO TASA UDALEK KUDEATZEKO: Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko azaroaren 16an egindako bileran onetsitako Alkatetza-Udalburutzaren 776/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2004ko azaroaren 10ean hartu zuen 222 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2004ko urriaren 27an egindako bileran Batzordean bildutako guztiei Eudel eta Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U.ren arteko hitzarmenaren kopia bana eman die. Hitzarmen hori tokiko herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo bakarreko erabilera egiteagatiko tasa udalek kudeatzeaz buruzkoa da. Horren helburua gaia aztertzea da, Udalak hitzarmenean parte hartzea erabaki aurretik.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak galdetu du Iberdrolak merkatuan aritzen diren beste enpresa batzuei bere sareak uzteagatik jasotzen dituen alogera errentei ere % 1,5 aplikatzen zaien. Tasaren zerga-oinarria zerbitzu horiek ustiatzen dituzten enpresek urtean udalerrian lortutako fakturaziotik datozen sarrera gordinak direla erantzun da, eta beraz, ez dira kontuan hartzen enpresa horiek izan ditzaketen bestelako diru-sarrerak, hala nola, sareak alokatzeagatik lortutakoak. Hala ere, Iberdrolari sareak alokatu eta hornidura herritarrei fakturatzen dieten enpresei aipatutako % 1,5 kobratuko zaie.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman dio honi:

1. Eudel eta Iberdrolaren arteko hitzarmena, tokiko herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo bakarreko erabilera egiteagatik tasa udalek kudeatzeko. Aldeko botoa eman dute EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo batzordeburu jaunak, EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunak, EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jaunak, EAJ-PNVko Ainara Urbietta Bergara andreak, PSE-EE-PSOeko Nieves Hurtado Urtiaga andreak, PSE-EE-PSOeko Mercedes Angulo Ordozgoitia andreak, PPko Iñaki Gamero Delgado jaunak eta PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak. Kontrako botoa EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak eman du.
2. Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bilerako gai-zerrendan Udal honek hitzarmen horretan parte hartuko duela adieraziko da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren aipatutako arrazoiak direla-eta bozketan abstenitu egingo direla adierazi du.

Jarraian, bozketa egin da eta honakoa izan da emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Bozketan aldeko hemeretzi boto izan dira guztira, EAJ-PNVko hamar zinegotzirenak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzirenak, PPko lau zinegotzirenak eta EAko zinegotziarena. Bi abstentzio egon dira, EB-Berdeak taldeko zinegotzirenak. Ondorioz, Udalaren osoko bilkurak **gehiengoz erabaki du** *“Eudel-Iberdrola Distribución hitzarmena, tokiko herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo bakarreko erabilera egiteagatik tasa udalek kudeatzeko dena”* onestea.

5. - FITXATEGI PERTSONALAK SORTZEA: ERABAKI PROPOSAMENA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko azaroaren 9an egindako bileran onetsitako Alkatetza-Udalburutzaren 762/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2004ko azaroaren 2an hartu zuen 113 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Batzorde honi ondoko erabaki proposamenaren berri eman zaio, horren inguruko erabakia har dezan:

“Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikulua ezartzen du Herri Administrazioen fitxategiak sortzea, aldatzea edo ezabatzea “Estatuko Aldizkari Ofizial”ean edo dagokion egunkari ofizialean argitaratutako xedapen orokorren bidez bakarrik egin daitekeela.

Leioako Udalari dagozkion eskumenak egoki kudeatu ahal izateko, beharrezkoa da fitxategi pertsonalak sortzea.

Horri dagokionez, indarrean dauden legezko xedapenek udal honi emandako eskuduntzen arabera eta aipatutako Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikulua ezartzen duena betetzeko, honako hau

ERABAKI DA

LEHENENGOA.- Fitxategiak sortzea.

Leioako Udalari lotutako fitxategi pertsonalak, erabaki honen 1.eranskinean deskribatzen direnak, sortuko dira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.- Indarrean jartzea.

Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.”

Barne Araubideko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio aurkeztutako erabaki proposamenari. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da, aipatutako Lege Organikoak ezartzen dituen arauak kontuan hartuz.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, honako erabakia onetsi du:

Lehenengoa.- Leioako Udalari lotutako fitxategi pertsonalak, erabaki honen 1. eranskinean deskribatzen direnak, sortuko dira. Horiek Norberaren Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen aplikazio-eremuen barnean daude.

Bigarrena.- Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari eta Euskal Bulegoari eta erabaki honek eragindako udal organo eta erakundeei horren berri emango zaie.

6.- KREDITUAK ALDATZEKO 5/2004 ESPEDIENTEA, UDAL AURREKONTUKO KREDITU GEHIGARRIAREN BIDEZ: Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2004ko azaroaren 15ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 233/2004 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Batzorde honi kredituak aldatzeko espediente bati buruz (mota: Diruzaintzako gerakin likidoaren kargurako kreditu-gehigarria) egindako proposamena aztertu da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikulua eta aurrekontuak betearazteko udal arauaren 4.f) oinarriak xedatutakoari jarraiki, kreditu-gehigarriak modu hauetara finantza daitezke:

- a Diruzaintzako gerakin likidoaren kargura.
- b Benetan bildutako diru-sarrera berri edo handiagoen bidez.
- c Aurrekontuko beste partida batzuen kreditua deuseztatuz edo horri baja emanez.

Hona hemen gehikuntzaren zenbatekoa eta finantzazio modua azalduta:

KREDITU-GEHIGARRIA

AURREKONTUKO PARTIDA	IZENA	GEHITU BEHARREKO ZENBATEKOA
00300.12110.2390000	Sakoneta kiroldegia zaintzea	25.000,00 €
01000.46010.2200200	Egunkariak, aldizkariak, liburuak	500,00 €
01000.46010.2210900	Garbiketa produktuak, Sakoneta kiroldegia	2.807,89 €
01000.46010.2260300	Herritarren jakinarazpenak, Sakoneta kiroldegia	3000,00 €
01000.46010.2270100	Sakoneta kiroldegia garbitzea	30.000,00 €
01000.46010.2271200	Kirolerako lanak	90.000,00 €
01000.46030.2110000	Sarriena kiroldegia zaintzea	25.000,00 €
01000.46030.2210900	Garbiketa produktuak, Sarriena kiroldegia	1.300,00 €
01000.46030.2279900	Hitzartutako Zerbitzuak, Sarriena kiroldegia	26.000,00 €
01000.46030.2270100	Sakoneta kiroldegia garbitzea	40.000,00 €
01000.46040.2210100	Ondiz pabiloiko energia	300,00 €
01000.460300.2210100	Sarriena kiroldegiko energia elektrikoa	4.000,00 €
GUZTIRA		247.907,89 €

FINANTZIAZIOA

AURREKONTUKO KONTZEPTUA	IZENA	ERABILITAKO ZENBATEKOA
87001	Gerakinak sartzea	247.907,89 €

Udalaren osoko bilkurari dagokio espediente hau onestea, aurrekontuak betearazteko udal arauan xedatutakoaren arabera.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

1. Honakoaren aldeko irizpena emango da: kredituak aldatzeko 5/2004 espedientea (mota: udal aurrekontuko kreditu-gehigarria), irizpen honetan aipatutakoa, hain zuzen ere.
2. Kredituak aldatzeko espedientea onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez, eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, kredituak aldatzeko 5/2004 espedientea (mota: udal aurrekontuko kreditu-gehigarria) **onetsi du**, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean adierazten den eran.

7.- KREDITUAK ALDATZEKO 2/2004 ESPEDIENTEA, UDAL AURREKONTUKO FUNTZIO-TALDE EZBERDINEN ARTEAN KREDITU TRANSFERENTZIAK EGITEAREN BIDEZ.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2004ko azaroaren 15ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 232/2004 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Gastuak premiaz burutu behar direnez, eta horiek finantzatzeko aurrekontuko krediturik ez dagoenez edo kredituek behar beste dirurik ez dutenez, kredituak aldatzeko espediente bat egin beharko da (mota: kreditu transferentziak). Horrela, aurrekontuaren zenbateko osoa aldatu gabe, kredituaren zenbateko osoa edo horren zati bat aurrekontuko beste partida batzuetan sartuko da, nahiz eta lotura juridiko ezberdina duten.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 29. artikulua eta aurrekontua betearazteko 3. oinarriak xedatutakoari jarraiki, funtzio-talde ezberdinen arteko kreditu transferentziak Udalaren osoko bilkurari dagozkio.

Transferitutako kredituak eta horien finantzazioa jasotzen dituzten partidak ondoren zehaztutakoak izango dira:

GEHIKUNTZAK

AURREKONTU PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
00800/55990/6240000	Ibilgailuak eskuratzea	8.303,52 €
00700/51110/7710000	Birgaitzeko obrak	32.108,80 €
00900/41240/4811500	Gurutze Gorriaren diru-laguntza	4.150,58 €
009/45090/4811600	Herriko Jaietarako diru-laguntza	37.348,95 €
00900/45100/4811500	Pinuetako administrazio bulegoa	21.072,44 €
00900/45150/4811500	Erakusketak, lehiaketak, hitzaldiak	77.428,03 €



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

00700/223110/4200100	Suteak itzaltzeko zerbitzua	43.040,19 €
GUZTIRA		223.452,51 €

KREDITU MURRIZKETAK

AURREKONTU PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
00400/22210/6290000	Udaltzaingoan inbentaria daitekeen materiala	8.303,52 €
00700/51110/4800900	Jabeen Erkidegoetako diru-laguntzak	32.108,80 €
00900/9502/2269000	Gastu Nagusia, Kostua	140.000,00 €
00700/51110/480900	Jabeen Erkidegoetako diru-laguntzak	43.040,19 €
GUZTIRA		223.452,51 €

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Honakoaren aldeko irizpena emango da: kredituak aldatzeko 2/2004 espedientea (mota: udal aurrekontuko kreditu transferentziak), irizpen honetan aipatutakoa, hain zuzen ere.
2. Kredituak aldatzeko espedientea onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez, eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Tokiko Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, kredituak aldatzeko 2/2004 espedientea (mota: udal aurrekontuko kreditu transferentziak) **onetsi du**, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean adierazten den eran.

8.- EB-BERDEAK TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA; HORI, UDAL TITULARTASUNEN ERAIKINETAN ENERGIA-ITURRI BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEARI BURUZKOA DA. Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2004ko azaroaren 17an egindako bileran onetsitako Alkatetza-Udalburutzaren 184/2004 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek 2004ko urriaren 19an EB-Berdeak taldearen udaleko ordezkariak (sarrera-erregistroko zenbakia: 5.812) aurkeztutako udal titulartasuneko eraikinetan energia-iturri berriztagarriak sustatzeari buruzko mozioaren berri ematen dute. Mozio hori Barne Araubideko Informazio Batzordean eztabaidatu da (2004ko urriaren 19kan hartutako 108 zenbakidun irizpena), eta proposamena aztertzeko denborarik egon ez denez, gaia mahai gainean uztea bidezkoa dela erabaki dute:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

“Titularitate publikoko eraikinetan energia-iturri berriztagarriak sustatzeko MOZIOA.

Azken urteotan, hitzarmen ugari sortu dira Euskadiko zenbait erakunde publikoren eta Energiaren Euskal Erakundearen arteko lankidetzaren ondorioz. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Bilboko Udalak hitzarmena sinatu berri dute, EEEren eta erakunde horien arteko lankidetzaz-esparrua ezartzeko. Hori dela eta, panel fotovoltaikoak jarriko dira eskoletan eta erakunde horien menpeko beste eraikin publiko batzuetan, energia zentzuz erabiltzeko eta iturri berriztagarriak hobeto ustiatzeko. Hitzarmena abian jartzen denean, erakunde sinatzaileek energiaren %10-%15 aurrezteko aukera izango dute, energia natural eta berriztagarri nagusietako bat erabiliko dutelako: eguzkia.

Beraz, Ezker Batua - Berdeak erakundearen ustez Leioako Udala ezin da atzean geratu. Izan ere, hitzarmen hori sinatu duten erakundeekin batera, energia berriztagarriak sustatu behar ditu, eta bere titularitate edo partaidetza publikoko eraikinetan erabiltzen hasi behar da. Hori guztiori dela eta, Ezker Batua - Berdeak erakundeak honako hau aurkezten du:

MOZIOA

Leioako udalbatzak Leioako Udalari eskatzen dio behar beste ekimen garatzeko, Energiaren Euskal Erakundearekin hitzarmena ezarri ahal izateko. Horri Ezker, panel fotovoltaikoak jarri ahal izango ditu udalaren titularitateko edo partaidetzako eraikin eta instalazioetan, energia zentzuz erabiltzeko eta iturri berriztagarriak hobeto ustiatzeko.

MOCIÓN relativa al fomento de fuentes energéticas renovables en los edificios de titularidad pública.

En los últimos años, la colaboración de las diferentes instituciones públicas de Euskadi con el Ente Vasco de Energía ha dado lugar a numerosos acuerdos. Sin ir más lejos, la Diputación Foral de Gipuzkoa o el Ayuntamiento de Bilbao han firmado recientemente un convenio que establece un marco de colaboración entre el EVE y las respectivas entidades, por el que se instalarán paneles fotovoltaicos en las escuelas y otros edificios públicos dependientes de las mismas, con el fin último de lograr un uso racional de la energía y un mayor aprovechamiento de las fuentes renovables. La puesta en marcha de dicho convenio permitirá a las instituciones firmantes ahorrar entre un 10 y un 15% de energía, toda vez que se hará uso de una de las principales energías naturales y renovables: el sol.

A este respecto, Ezker Batua-Berdeak entiende que el Ayuntamiento de Leioa no puede ni debe quedarse atrás, y que junto a las entidades que ya han firmado dicho convenio, debe contribuir al impulso de las energías renovables comenzando por los edificios de titularidad o participación pública propios. Por todo ello, Ezker Batua-Berdeak presenta la siguiente:

MOCIÓN

El pleno municipal de Leioa insta al Ayuntamiento de Leioa a adoptar cuantas iniciativas sean necesarias, para establecer un convenio con el Ente Vasco de la Energía, que permita la instalación de paneles fotovoltaicos en los edificios e instalaciones de titularidad o participación municipal, con el fin último de alcanzar en ellos un uso racional de la energía y un mayor aprovechamiento de las fuentes renovables.”

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio dokumentu honen edukia bidaltzeari, udalaren osoko bilkurak azaroaren 18an egingo duen bileran eztabaida dadin.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Mozio hori aurrerapauso argia dela eta iraunkortasuna lortzeko proposamena dela adierazi du, eta beraz, konpromiso zorrotz bat izan gabe, erabaki berriak hartzeko orduan hausnarketa egitea proposatu du, beren ustez onuragarria den irtenbidea lortzeko asmoz.

PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak honakoa adierazi du:

Mozioaren testuarekin guztiz ados daudela adierazi du; hala ere, uste dute interpretazio zabalagoa eman beharko litzaiokeela, ez bakarrik panel fotovoltaikoei dagokienez, baizik eta orokorrean, energia-iturri berriztagarri eta energia aurrezteko neurriei dagokienez ere bai. Izan ere, udalaren eraikinetan edota esku-hartzea duen beste eraikinetan betetzen dituen jardueretan, panel fotovoltaikoak jartzea gehienetan ez da irtenbiderik egokiena, ezta bideragarriena ere. Hori dela eta, testua aldatu gabe, guztiek zentzu zabalean panel fotovoltaiko eta energia aurrezteko beste neurri batzuei buruzko testua onartzea eskatu du.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

PPren izenean Arturo Aldecoa jaunak esandakoa pixka bat sakontzeko, oso konpromiso zorrotzak ez direnez, lehenik eta behin panel fotovoltaikoak ezarri eta jarduera horren emaitzak aztertu beharko liratekeela adierazi du, betiere iturri berriztagarrietatik ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Horregatik, gai horri ez zaio oraindik amaierarik eman, eta argi geratu da azken helburua energia zentzuz erabiltzea eta iturri berriztagarrietatik etekin handiena ateratzea dela.

Eako Ángel Ernesto Trigueros S. Coloma jaunak honakoa adierazi du:

Mozioan egindako proposamena egokia dela, baina ideia zabalagoa izan dezakeela adierazi du. Hala ere, kontuan hartu behar da gai horren inguruan izandako esperientzia, eta era berean, konpromisoak irmoak eta errentagarriak diren aztertu behar da, baita zein puntutaraino susta daitezkeen ere, eta ez bakarrik zelula fotovoltaikoei dagokienean, beste energia-neurri batzuei dagokienean ere bai. Kontuan hartu behar da teknologia finkatuta dagoela, eta garapena espero den arren, gure herrialdeko euri, hodei, kutsadura, zelula horien mantentze-lan eta garbiketa eta abar arazo bihur daitezke. Beraz, kontu hori aztertu eta bidezkoena dena egitea erabaki beharko da.

Jarraian, bozketa egin da eta honakoa izan da emaitza:

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, EB-Berdeak taldeak aurkeztutako mozioa, udal titulartasuneko eraikinetan energia-iturri berriztagarriak sustatzeari buruzkoa, **oneste erabaki du**.

9. EB-BERDEAK TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA; HORI, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN ARAUAN OKUPATU GABEKO EGOITZAZKO HIGIEZINAREN KONTZEPTUA ARAUDIAREN ARABERA GARATZEARI BURUZKOA DA. Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2004ko azaroaren 15an egindako bileran onetsitako Alkatetza-Udalburutzaren 236/2004 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak irizpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezi honek 2004ko azaroaren 10ean egindako bileran, aldeko irizpena eman dio EB-BERDEAK taldeak aurkeztutako mozioa Batzordean berriro aztertzeari. Mozio hori Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauan okupatu gabeko egoitzazko higiezinaren kontzeptua araudiaren arabera garatzeari buruzkoa da, eta jarraian hitzez hitz adierazi da:

“Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko arautegiaren garapenari buruzko UDAL-MOZIOA



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

JUSTIFIKAZIOA

2004. urtean, zerga eta tributu arloko aldaketa ugari gertatu dira Bizkaian. Beste berrikuntza batzuen artean, udalerriek kuota likidoaren %50erainoko gainordaina ezarri dezakete etengabe hutsik dauden egoitza-higiezinaren gainean. Aukera hori abian jarri ahal izateko, erakunde eskudunek, foru-aldundiek, behar bezala garatu behar dute Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko arautegia. Dena dela, izapide hori bete ez denez, udalerriek ez dute ezer egiterik, aukera hori abian jartzea egokia iruditzen bazaie ere.

Egia esan, foru-aldundiek OHZ arautzen duen arautegia zentzu horretan garatzeko aukera izan dezaten, etengabe hutsik dagoen egoitza-higiezina zer den azaldu beharra dago EAEko hiru lurraldeetan, kontzeptu hori bera izan behar da hiru lurraldeetarako eta hiru lurraldeetan ezarri daitekeen gutxienezko oinarri juridikoa izan behar du. Izan ere, gaur arte ia-ia ezezaguna den kontzeptua da ikuspegi juridikoari begira edo ez du beharrezko arauzko zehaztapenik, behintzat. Horra hor aipatutako arautegia garatzeko oztopo nagusietako bat.

Era berean, egia ere bada Ezker Batua - Berdeak erakundeak bere esku dagoen guztia egin duela arazo horri aurre egiteko. Hain zuzen ere, arazoa konpontzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak bere garaian bidali zion proposamena Zergak Koordinatzeko Organoari, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duten foru-arauetan jasotako Etengabe Hutsik dagoen Egoitza Higiezinaren kontzeptua arautzeko (ikus erantsitako agiriak).

Proposamen hori aztertu eta onartzeko zentzuzko epea igarotakoan, gure ustez Bizkaiko Foru Aldundiak inolako luzamendurik gabe betearazi dezake horren gaineko arauzko ahalmena. Horrela egin ezean, udalerriek ez dute gainordaina ezartzeko aukerarik izango, higiezinaren parkea hobeto ustiatzeko eta eskatzaileen etxebizitza-eskariari aurre egiteko. Hori guztiori dela eta, Ezker Batua - Berdeak erakundeak honako hau aurkezten du:

MOZIOA

Leioako udalbatzak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen dio OHZri buruzko Foru Arauan jasotako etengabe hutsik dagoen egoitza-higiezinaren kontzeptua arauz garatzeko, Eusko Jaurlaritzaren arauketa-proposamena kontuan hartuta. Horrela, bada, Leioako Udalak kuota likidoaren %50erainoko ordainagiria ezarri ahal izango du ondasun horien gainean.

MOCIÓN MUNICIPAL relativa al desarrollo normativo del Impuesto sobre Bienes Inmuebles

JUSTIFICACIÓN

2004 ha sido un año especialmente novedoso en lo que a reformas fiscales y tributarias respecta en Bizkaia. Entre otras novedades, se ha establecido la posibilidad de que los municipios apliquen un recargo de hasta el 50% de la cuota líquida sobre los inmuebles residenciales desocupados con carácter permanente. Tal posibilidad requiere de un adecuado desarrollo de la normativa del Impuesto de Bienes Inmuebles por parte de las instituciones competentes, las Diputaciones Forales, pero falta acometer este trámite para que los municipios procedan, si así lo estiman oportuno.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Es cierto que para que las Diputaciones Forales puedan desarrollar la normativa reguladora del IBI en la dirección señalada, hay que partir de un concepto de inmueble de uso residencial desocupado permanente que sea común a los tres Territorios de la CAPV y contenga una mínima base jurídica aplicable en todos ellos, dado que nos hallamos ante un concepto prácticamente inédito hasta la fecha desde el punto de vista jurídico, o cuando menos, carente de la necesaria determinación reglamentaria. Ello ha sido uno de los principales obstáculos para el desarrollo normativo referido.

No es menos cierto, igualmente, que Ezker Batua-Berdeak ha hecho todo cuanto está en su mano para superar esta cuestión; que al objeto de solventarla, el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco remitió en su día al Órgano de Coordinación Tributaria una propuesta de regulación reglamentaria del concepto de Inmueble de Uso Residencial Desocupado con carácter Permanente, recogido en las Normas Forales reguladoras del Impuesto sobre Bienes Inmuebles (ver documentación adjunta).

Pasado un tiempo razonable para el estudio y la aprobación de dicha propuesta, entendemos que la Diputación Foral de (...) puede ejercer sin más dilación su potestad reglamentaria en base a la misma. Lo contrario sería privar a los municipios de la posibilidad de establecer un recargo que busca incentivar un mejor aprovechamiento del parque inmobiliario y promover el acceso a la vivienda de la población demandante. Por todo ello, Ezker Batua-Berdeak presenta la siguiente:

MOCIÓN

El pleno municipal de Leioa insta a la Diputación Foral de Bizkaia a desarrollar reglamentariamente el concepto de inmueble residencial desocupado de la Norma Foral del IBI, en base a la propuesta de regulación del Gobierno Vasco adjunta, para que el Ayuntamiento de Leioa pueda aplicar el recargo previsto de hasta el 50% de la cuota líquida sobre estos bienes.”

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo batzordeburu jaunak adierazi du bere talde politikoak mozio hori zati batean onartuko duela, Batzordeak aurreko astean egindako bileran adierazi zuen bezala. Honakoa onartuko du:

Leioako Udalaren osoko bilkurak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauan okupatu gabeko egoitzazko higiezinaren kontzeptua araudiaren arabera garatzeko eskatuko dio Bizkaiko Foru Aldundiari.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak adierazi du bere talde politikoa ez dagoela ados jabeak kargatzeko araudiarekin, eta horregatik mozioaren aurka bozkatuko dute.

PSE-EE-PSOeko Nieves Hurtado Urtiaga andreak adierazi du bere talde politikoa momentuz abstenitu egingo dela, eta Udalaren osoko bilkuran erabakiko duela.

EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo batzordeburu jaunak adierazi du bi proposamen egin daitezkeela mozioaren gainean. Bata EB-BERDEAK taldeak aurkeztutakoa da, eta bestea EAJ-PNVk aurkeztutakoa. Horretan azkenean okupatu gabeko higiezinaren kontzeptua araudiaren arabera garatzeko baino ez zaio eskatzen Bizkaiko Foru Aldundiari, udalak aurreikusitako erreklamo aplikatzen duen ala ez erabaki gabe.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

1. Aldeko irizpena eman dio EAJ-PNVk egindako mozio proposamenari. Aldeko botoa eman dute EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo batzordeburu jaunak, EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunak, EAJ-PNVko Ainara Urbieta Bergara andreak eta EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jaunak. PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna, PPko Iñaki Gamero Delgado jauna eta PSE-EE-PSOeko Nieves Hurtado Urtiaga andrea abstenitu egingo dira.

2. Kontrako irizpena eman dio EB-BERDEAK taldeak aurkeztutako mozio proposamenari.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

Puntu horren gainean, bi proposamen daudela azaldu du. Bata EB-BERDEAK taldeak aurkeztutako moziari dagokiona da, eta bestea, berriz, EAJ-PNVk sinatutakoa.

EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Proposamen hori hurrengo urtean tasen gainean aplikatuko beharreko aldaketari buruzko osoko bilkuran aipatu zutela adierazi du, eta oraindik ere horri eusten diote, uste baitute denontzako etxebizitzaren aldeko politika aktiboa hutsik dagoen etxebizitza ez saritzea edo, posiblea izatekotan, zigortzea eta gai horretako hutsune batzuk betetzea dela. Hori dela eta, osoko bilkura horretan Eusko Jaurlaritzaren dokumentuaren antzeko bat onestea eskatu dute. Halaber, Aldundiari definizio juridiko argi bat egiteko eskatzeko eskatu dute, Leioako Udalak une horietan aurreikusitako errekargua aplikatu ahal izan dezan.

Amaitzeko, moziari eutsiko diotela adierazi du, beren asmoa Leioako Udalak aurreikusitako errekargua aplikatu ahal izatea da eta.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak** honakoa adierazi du:

Lehenik eta behin EB-BERDEAK taldearen mozioa bozkatuko dela, eta jarraian EAJ-PNVrena, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren aldeko irizpena jaso duena, adierazi du.

EB-BERDEAK TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN BOZKETA

Aldeko bi boto, EB-Berdeak taldeko zinegotzienak; **kontrako hamabost boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak, PPko lau zinegotzienak eta EAko zinegotziarena; eta **lau abstentzio**, PSE-EE-PSOeko zinegotzienak.

EAJ-PNVK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAREN BOZKETA

Aldeko hamabost boto, EAJ-PNVko hamar zinegotzienak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak eta EAko zinegotziarena; eta **sei abstentzio**, PPko lau zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **gehiengoz erabaki du** EAJ-PNVren proposamena **onestea**, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean adierazten den eran. Horren ondorioz,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Bizkaiko Foru Aldundiari Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauan okupatu gabeko egoitzazko higiezinaren kontzeptua araudiaren arabera garatzeko eskatuko zaio.

BOZKETAREN AZALPENA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Ezker Batuak aurkeztutako mozioak bi atal izan ditzakeela eta azkenean, horrelaxe bozkatu egin dela adierazi du. Mozioaren lehenengo zatian Bizkaiko Foru Aldundiari okupatu gabeko egoitzazko higiezinaren kontzeptua araudiaren arabera garatzeko eskatzen zaio. Alde horretatik, mozioaren justifikazioan azaltzen denez, okupatu gabeko egoitzazko higiezinaren kontzeptuaren araudiaren araberrako garapena Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Aldundiek osatutako Zerga-Kideketarako Sailaren esku dagoela adierazi du, eta beraz, organo horri dagokiola araudiaren arabera garatzea.

Sail hori legeen arteko kontraesanik egon ez dadin estatu mailako lege baten zain dagoenez, kontzeptuaren araudiaren araberrako garapenari buruzko erabakirik ez duela hartu azaldu du. Horregatik, beraiek uste dute zain egote hori arrazoituta dagoela, eta Udalak ez liokeela Aldundiari eskatu beharko, hiru Aldundien baterako organo baten esku dagoen gai bat bere kabuz konpontzeko.

Leioako Udalak etorkizunean Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren errekarua aplikatu ahal izango duela adierazten duen mozioaren bigarren zatian dagokionez, beraiek hutsik dauden etxebizitza-programan sartzeko euren etxebizitzak Eusko Jaurlaritzaren esku uzten dituzten jabeak saritzearen eta sustatzearen alde egongo liratekeela azaldu du. Beraz, alde horretatik, nahiago dute sustapenaren alde agertu edo jabeen eremu fiskala sustatu, mozioan proposatzen den bezala Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren errekaruak ezarri baino. Hori dela eta, Ezker Batuak egindako proposamenaren aurka daude.

10.- EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA KENTZEKO NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO ERAKUNDEEN ADIERAZPENA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko azaroaren 16an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 778/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenaren dioena:

Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeak 2004ko azaroaren 10ean hartu zuen 120 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Emakundek urriaren 26an bidalitako idazkiaren berri eman da (sarrera-erregistroko zenbakia: 1.117). Horren bidez, azaroaren 25ean Emakumeen kontrako Indarkeria kentzeko Nazioarteko Eguna egingo dela eta, erakundearen arteko ekimena gauzatuko dela jakinarazi da. Ekimen horren bidez, alde batetik etxean tratatu txarrak jasaten dituzten biktimei kasu horietan zer egin esango zaie, eta beste aldetik, aipatutako egoeratik irteteko pausoak emateko adorea emango zaie. Horretarako, egunkarietan publizitate orri bat sartzea eta kartelak zabaltzea aurreikusi da.

Hori dela eta, Udal honi ekimenarekin bat egiteko eskatu dio, Udalaren osoko bilkurak erakundearen adierazpen bat onetsiz eta informazio-kartelak banatuz. Emakundek eredu erantsi du adierazpen horretarako.

Alde horretatik, Alderdi Popularreko ordezkariak beste adierazpen proposamen bat aurkeztu du, eztabaidatu eta horri buruzko erabakia eman dadin.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA
BIZKAIA

Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Informazio Batzordeak honakoa egitea egokia dela adierazi du: emakumeen kontrako indarkeria kentzeko nazioarteko egunari buruzko erakundearen adierazpena, Udal honetan ordezkariak duten alderdi politiko guztiek sinatu dutena, Udalaren osoko bilkurari bidaltzea.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

Udal honetan ordezkariak duten alderdi politiko guztiek sinatu duten emakumeen kontrako indarkeria kentzeko nazioarteko egunari buruzko erakundearen adierazpena hurrengo dela adierazi du:

“ERAKUNDEEN ADIERAZPENA

2004ko azaroaren 25ean emakumeen kontrako indarkeria kentzeko nazioarteko eguna ospatzeko, udalak honakoa adierazi du:

- *Emakumeen kontrako indarkeriak giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak urratu eta horiek erabiltzea saihesten du.*
- *Indarkeria hori emakumeek bizitzako eremu ezberdinetan daukaten desberdintasuneko egitura-egoeran dago errotuta; gainera, desberdintasunaren beste alderdietako bat izateaz gain, aipatutako desberdintasun horrek irauteko gizarte kontrolaren oinarrizko tresna ere bada.*
- *Emakumeen kontrako indarkeriari aurrea har lekiok sexu-berdintasuna sustatzeko, autonomia bultzatzeko eta emakumeen jarrera politiko, ekonomiko eta soziala indartzeko politika eta jardueren bitartez, bai eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erabiltzea bultzatuz ere.*
- *Emakumeen kontrako ekintzak egiten dituztenek jakin behar dute legeak aipatutako ekintza horiek zehatzen dituztela, eta gizarteak ez dituela horrelako jokabideak onartzen.*
- *Indarkeria honen biktimek gizartearen elkartasun eta babesa sentitu behar dute eta beren esku ipini behar ditugu indarkeriaren espiraletik irten eta berriro hasteko behar dituzten beharrezko baliabide material eta pertsonalak.*
- *Egia da azken urte hauetan nabarmen hazi dela gizarteko gaitz honen aurreko konpromiso politikoa, bai eta gizartearena eta erakundeena ere, eta jarduera garrantzitsuak burutu direla indarkeria erazteko. Hala ere, artean asko dago egiteko.*
- *Tokiko Administrazioak funtsezko egitekoa dauka, bai emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzeko lanean bai eta biktimei arreta eta babesa emateko lanean ere; izan ere, udalerrira da, lurralde eremuan, indarkeria gauzatzeko erabiltzen den lekua eta, gainera, antolaketari dagokionez, gizarte arazo horrek eta indarkeriak eragindako pertsonen hurbilen daukaten erakunde.*

Horregatik guztiagatik, Udal honek:

- *Berdintasunaren aldeko politika aktiboa garatzeko konpromisoa hartu du, bere eskumenen eremuan, gure eremuan emakumeen kontrako indarkeriarekiko sentsibilizazioa eta gaitzespen*



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

soziala bultzatuz.

- *Estatuan zein Euskadin gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunaren alde eta genero indarkeriaren aurka abiarazitako lege-ekimenak babestu eta horiekiko konpromisoa hartu du, botere publiko ezberdinekin batera haien aplikazioa bultzatzeko konpromisoa onartuta.*
- *Herri Administrazio ezberdinen behar bezalako aurrekontuko hornidura eskatu du, beren eskumenen eremuan.*
- *Halaber, animatu egin ditu udalerriko emakumezkoak eta, batez ere gizonezkoak, indarkeria horren aurreko jarrera aktiboa har dezaten, indarkeria ez onartuz, indarkeria egoeren aurrean isilik ez geratuz, biktimei babesa eskainiz eta, bereziki, azaroaren 25a ospatzeko deituko diren ekitaldietan parte hartuz.”*

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, alderdi politiko guztiek “Emakumeen kontrako Indarkeria kentzeko Nazioarteko Egunari buruzko Erakundeen adierazpena”ri buruz sinatu duten testua **onestea erabaki du**.

11.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2004-10-22TIK 2004-11-12RA. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeak kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkateak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

12.- PRESAZKO MOZIOAK

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.

13.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Hurrengo eskaria eta galdera egin dira:

1.- **EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiurrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

A) Eskaria: Dominikar Errepublikara bidaiatuko diren zinegotzi guztiei ondo pasatzeko opatzen diela adierazi du, eta udalak merezi duen moduan ordezkatzeko eskatu die.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

EB-Berdeak taldeko bozeramaileari haren eskaria eskertu dio, eta horri dagokionez, udalak merezi duen moduan ordezkatzeko saiatuko direla adierazi dio.

2.- **PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

B) Galdera: Udalaren osoko bilkurak urte horretako apirilaren 29an egindako bileran, bere talde politikoak 1978ko konstituzioaren ondoren egin ziren lehen udal hauteskunde demokratikoen



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

hogeita bosgarren urteurrenari buruzko erakunde-adierazpenaren gainean presazko mozio bat aurkeztu zuen. Mozio hori dela eta, Eusko Alderdi Jeltzalearen eta Eusko Alkartasunaren botoen bidez haren premiazkotasuna atzera bota zen. Urteko urriaren 31n burutzeko ospakizun proposamen bat prestatzen ari zela aipatu zen, baina egun hori jada pasatu da, eta hala ere, Eusko Alderdi Jeltzaleak ez du aurkeztu EB-Berdeak taldearen proposamenaren ordezkotza adierazpenik, alkate jaunak Udalaren osoko bilkurak apirilean egindako bileran adierazi zuenez. Hori dela eta, eta urtea amaitzeko hilabete bat baino pixka bat gehiago bakarrik falta denez, galdetu nahi du ea Gobernu Taldeak 1978ko konstituzioaren ondoren egin ziren lehen udal hauteskunde demokratikoen hogeita bosgarren urteurrena ospatzeko, eta bere taldeak apirilean aurkeztu zuen proposamenaren ordezkotza adierazpenen bat aurkezteko asmoa daukan ala ez. Amaitzeko, ondoko udalerrri batzuek, esate baterako Sopenana, aipatutako urteurrena ospatu dutela adierazi du.

Halaber, zinegotziak Dominikar Errepublikara bidaiatuko direla eta, EB-Berdeak taldeko bozeramaileak adierazitako gogoarekin bat egin duela esan du.

Alkate-udalburuak, **EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak**, honakoa adierazi du:

Lehen udal hauteskunde demokratikoen hogeita bosgarren urteurrena ospatzeko asmoa dagoela adierazi du, baina oraindik ez da gauzatu, izan duen eta une horretan oraindik daukan lan kopuru handiagatik. Izan ere, egun horietan Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioa Gasteizen dago, federazioaren 25. urteurrena ospatzeko, eta berak hizlari jardungo du; horrez gain, atzeratu ezin daitezkeen beste betekizun batzuk ditu.

Gai horri dagokionez, Eudelen 20. urteurrena ospatu zela adierazi du. Udalaren osoko bilkurak apirilean egindako bileran berak adierazi zuen hori ospatzeko eta 25 urte horietan zinegotziak izan direnak biltzeko proposamen bat aurkezteko asmoa zuela. Uste du Sopenalan ere bilera bat antolatu dutela garai hartako alkate eta zinegotzi guztientzat. Beraz, eredu hori ontzat ematen badute, berak abenduan edo urtarrilean antzeko zerbait egiteko konpromisoa hartuko du. Zinegotziek ideiarekin ados daudela adierazi dute.

Eta gaueko bederatzia eta berrogei minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,